



Ostiralean abiatu zen Urretxindorra mentoretza sozialeko programaren 4. Ikasturtea

Sos Arrazakeriak, Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udalaren laguntzarekin garatzen duen ekimena, parte hartzaileak elkar ezagutzeko festa batekin hasi zen pasa den ostiralean.

Aste honetatik aurrera, jatorri atzerritarra duten 10-14 urte arteko 35 gaztek, erreferente edo gidari izango dute bertako goi mailako edo unibertsitateko ikasle bat. Aisia partekatzea, inguruetako lekuak ezagutzea, kultur eta kirol jardueretan parte hartzea eta besteekin elkartzeko kultur eta gizarte guneetara hurbiltzea erraztu nahi da Urretxindorra ekimenaren eskutik.

Gizartean murgiltzeko egokitzapen prozesuan, zailtasun mota ezberdinak aurkezten dituzten neska-mutilen garapen pertsonala eta gizarteratzea bultzatzea da helburua. Gazteen konfiantza pertsonal eta sozialak, autoestimua eta kompetentzia pertsonal, funtzional zein sozialak garatzen eta indartzen laguntzen baitu.

Proiektua ikaspen eta garapen aukera paregabea da mentoreentzako ere. Hauek kompetentzia pertsonal komunikatibo eta interkulturalak garatzeko aukera izango dute. Gainera beren mentoredunen errealitate anitzak eta bizi estilo ezberdinak ezagutzeko, eta haur hauen garapen pertsonal eta sozialean parte-hartzeko aukera dute.

Urretxindorra proiektua 2014 jarri zen martxan. Lehen ikasturtean 7 bikoteren esperientzia bikaina ikusita eta eskoletatik jasotako eskaerei erantzuna emanez, bikote kopurua bikoizten joan da urterik urtera, eta hasi berria den edizioan 35 bikotek hartuko dute parte. Guztira 70 gaztek.

Ikasturteari hasiera emateko eta gazteak eta beraien familiak, giro alaian elkar ezagutzeko, Donostiako Amara Berri Eskolan, Errenteriako Cristobal Gamón Ikastetxean eta Hernaniko Biteri Kulturetxean irekiera festa bana ospatu ziren joan den ostiralean.

Ikasturte osoan zehar Urretxindorra proiektuaren bidelagun izango dira Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Erreal, Aquariuma, Gipuzkoa Basquet Club, Tolosako Topic, Hernaniko Rugby Taldea eta Kutxa Ekogunea.



PRENTSA OHARRA NOTA DE PRENSA

Urretxindorra proiektuak Kataluniako Servei Solidari Fundazioaren Rossignol proiektua du oinarri, eta zoriontsu eta ziur sentitzen denean kantu egiten duen txoriaren izena darama.

Informazio gehiagorako:

Mikel Zubiria

mikel.zubiria@sosracismo.eu

679977259



Donostia/ San Sebastián, 6 de noviembre de 2017

El viernes arrancó el cuarto curso del programa de mentoría Urretxindorra / Ruiseñor

La iniciativa que lleva a cabo SOS Racismo Gipzukoa con la ayuda del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián, arrancó con una fiesta para que las personas mentoras, mentoradas y sus familias se conocieran mutuamente.

A partir de esta semana 35 jóvenes de entre 10 y 14 años de origen extranjero tendrán como mentor o persona de referencia a un estudiante de estudios superiores o universitarios. La iniciativa Urretxindorra /Ruiseñor quiere facilitar el acceso de los jóvenes a los entornos sociales, a las actividades culturales y deportivas, y en definitiva a que compartan su tiempo de ocio.

El objetivo es fomentar el desarrollo personal y la integración en la sociedad de las personas que presentan dificultades para la adaptación al entorno. Afianzar la confianza personal y la autoestima de los y las jóvenes, ayuda a fortalecer las competencias personales funcionales y sociales.

El proyecto también es una gran oportunidad para las personas mentoras. Estas personas desarrollan competencias personales y comunicativas gracias a este programa a través del conocimiento de las diferentes realidades y estilos de vida de las personas mentoradas. Además participan en el desarrollo social de estas personas.

El proyecto Urretxindorra/ Ruiseñor se puso en marcha el año 2014. 7 parejas participaron durante la primera experiencia. Tras comprobar el éxito de la misma, el proyecto ha ido doblando las parejas cada año, y este año serán 35 las parejas que participen en el proyecto. Un total de 70 jóvenes

Para dar comienzo al nuevo curso escolar, el pasado viernes se celebraron fiestas de inicio de curso en la Escuela Amara Berri de Donostia, la escuela Cristobal Gamón de Errenteria y Biteri Kulturetxea Hernani, donde en un ambiente distendido las personas participantes en el proyecto y sus familias pudieron conocerse.



PRENTSA OHARRA NOTA DE PRENSA

A lo largo de todo el curso escolar el proyecto contará con la colaboración de la Universidad del País Vasco, La Universidad de Deusto, La Real Sociedad, el Aquarium de Donostia, Gipuzkoa Basquet Club, Topic de Tolosa, Hernaniko Rugby Taldea y Kutxa Ekogunea.

El proyecto Urretxindorra/ Ruiseñor tiene como base el proyecto Rossignol de la Fundación Servei Solidari de Catalunya y debe su nombre al pájaro que canta cuando se siente feliz y seguro.

Para más información:

Mikel Zubiria

mikel.zubiria@sosracismo.eu

679977259